

## 1. BALOREZKO PROPOSAMENA

Euskal Herriko institutuetan dauden ikasleei, bereziki, bigarren bitxilergoan aurkitzen direnei **lana erraztea** daukagu helburutzat. Honekin batera, ikasleek plataforman zintzilikatuko ditugun apunteak eskura izango dituzte eta horrez gain, ikasle hauentzat **erabilerrazak** izatea espero dugu.

Plataforma honetan sartzeko eskatzen dugun **diru kantitatea baxua** da ( bost eurotik beheragoko prezioa izango da hilabetero) beste plataforma edota webgune batzuekin alderatuta. Horrez gain, plataforma hau **segurua** izango dela azpimarratu nahi dugu, ikasleek hilabetero material berria edo eguneratua eskura izango dutelako. Material hau beti ere euskaraz aurkituko dute. Eta **zalantzak argitzeko** aukera izango dute noiznahi.

